


Euskal AEko industri prezioak lehengoan 2014ko maiatzean aurreko hilaren aldean

Aurreko urtearen aldean (2014ko maiatza 2013koaren aldean) %0,7 jaitsi ziren

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industri prezioek lehengoan (%0,0) iraun zuten 2014ko maiatzean aurreko hilaren aldean. Datu horiek kontuan hartuta, maiatzeko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industriako prezioek izandako aldakuntza) %0,7 jaitsi da.



Sektorekako azterketa xeheagoak agerian uzten du, 2014ko maiatzean, “Energia elektrikoa, gasa eta lurruna” (%0,4), “Altzariak eta beste manufaktura-industriak” (%0,4) eta “Zurgintza, papergintza eta arte grafikoak” (%0,3) adarrek gehitu zituztela gehien prezioak, aurreko hilaren aldean. Jaitsierarik handienak: Erauzketa industriak (%-1,0), Kokeria eta petrolio fintzea (%-0,7), Produktu informatiko, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa (%-0,5), Produktu farmazeutikoen fabrikazioa (%-0,5).

Urte artean, 2014ko maiatza 2013koaren aldean, hazkunderik handienak: Zurgintza, papera eta arte grafikoak (%1,4), Energia elektrikoa, gasa eta lurruna (%0,9). Jaitsierak: Erauzketa industriak (%-3,4), Kokeriak eta petrolio fintzea (%-2,8), Metalurgia eta metalezko produktuak (%-1,6).

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkapenari jarraituz, maiatzean, aurreko hilaren aldean, sektore-talde handien prezioen bilakaerak desberdinak izan ziren. Bitarteko ondasunak eta Ekipokoak %0,1 gehitu ziren; Energian prezioetan %-0,2, Kontsumoko ondasunetan %,0,0; azken hauen barruan Kontsumo ondasun ez-iraunkorrekoetan %0,0 eta Iraunkorrekoetan %-0,1.

Urte artean: Energia %-1,3, Bitarteko ondasunak %-1,0, Ekipo-ondasunak %-0,5. Kontsumo-ondasunak %0,2 gehitu. Azken horien barruan, Kontsumo-ondasun iraunkorren prezioak %-0,9, Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrenak %+0,5.

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak(p). 2014ko maiatza

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %		
		2014mai / 2014api	2014mai / 2013mai	2014mai / 2013abe
INDIZE OROKORRA	108,8	0,0	-0,7	-1,0
Sektore-banaketa				
Ateratze-industriak	95,1	-1,0	-3,4	0,7
Manufaktura-industria	106,8	0,0	-1,0	-0,4
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	124,5	0,4	0,9	-5,1
Ondasunak, helburu ekonomikoka				
Kontsumo-ondasunak	105,0	0,0	0,2	-0,1
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	100,2	-0,1	-0,9	-1,1
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	106,7	0,0	0,5	0,2
Ekipo-ondasunak	103,7	0,1	-0,5	-0,1
Bitarteko ondasunak	104,2	0,1	-1,0	-0,3
Energia	125,0	-0,2	-1,3	-3,5

Oinarria 2010=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Euskal AEko industria prezioen indizea (IPRI)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria Prezioen Indizeari (IPRI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industri Prezioen Indizearen (IPRI) gaineko datu-bankua